


# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MUSEO ETA BILDUMAK

## 2024ko

## ESTATISTIKA-TXOSTENA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MUSEO ETA BILDUMAK

## 2024ko

## ESTATISTIKA-TXOSTENA

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2026

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

<b>Argitaraldia:</b>	2026ko martxo
<b>©</b>	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
<b>Internet:</b>	<a href="http://www.euskadi.eus/argitalpenak">www.euskadi.eus/argitalpenak</a>
<b>Argitaratzailea:</b>	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz
<b>Egilea:</b>	SIADeco S.COOP.L
<b>Koordinazioa:</b>	Ainhoa Bernabé Aramberri – Museoen Zentroa
<b>Datu eta Grafikoak:</b>	Teknei Digital SA
<b>Diseinua eta Maketazioa:</b>	Composiciones Rali, S.A.
<b>ISSN:</b>	2952-5942

# AURKIBIDEA

<b>Irudien aurkibidea</b> .....	<b>6</b>
<b>Taulen aurkibidea</b> .....	<b>8</b>
<b>Aurkezpena</b> .....	<b>9</b>
<b>Metodologia</b> .....	<b>10</b>
<b>1. Euskadiko museo-eskaintza: oinarrizko elementuak</b> .....	<b>12</b>
Euskadiko museo eta bildumen kokapena .....	12
Museo eta bildumen tipologia .....	13
Titulartasuna eta figura juridikoa .....	15
Kudeaketa mota .....	18
Eratutako urtearen arabera antzintasuna .....	20
Lagun Elkartek eta Patronatuak .....	21
<b>2. Azpiegitura, zerbitzuak eta ekipamenduak</b> .....	<b>24</b>
Zerbitzuak eta ekipamenduak .....	24
Informazioaren eta komunikazioaren teknologia .....	25
<b>3. Sarrera</b> .....	<b>28</b>
Jendeari irekitzeko modalitatea eta sarrera mota .....	28
Sarreraren ezaugarri ekonomikoak .....	30
<b>4. Museoen jarduerak</b> .....	<b>35</b>
Museo eta bildumek izandako bisitariak .....	35
Erakusketak eta beste jarduera batzuk .....	41
Argitalpenak .....	44
<b>5. Museoetako langileak</b> .....	<b>46</b>
Museo eta bildumei atxikitako langileak eta horien lan-harremana .....	46
Langileen lanbide-kategoria .....	49
Langileen banaketa generoaren arabera .....	51
Lanaldi mota .....	53
<b>6. Datu ekonomikoak</b> .....	<b>55</b>
<b>7. Museo funtsak</b> .....	<b>57</b>
<b>2024ko adierazle nagusiak</b> .....	<b>59</b>
<b>Eranskinak</b> .....	<b>61</b>
2024ko estatistikan parte hartu duten museoak eta bildumak .....	61

# IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia.	Museoen eta bildumen banaketa, udalerraren arabera. 2024. ....	12
2. irudia.	Museoak, lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024 .....	13
3. irudia.	Museoak eta bildumak, tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024 .....	14
4. irudia.	Museoak tipologiaren eta lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak). 2024 .....	15
5. irudia.	Museoen titulartasuna (balio absolutuak eta %). 2024 .....	16
6. irudia.	Titulartasun publikoko museo eta bildumen nortasun juridikoa (balio absolutuak eta %). 2024 ...	16
7. irudia.	Titulartasun pribatuko museo eta bildumen nortasun juridikoa (balio absolutuak eta %). 2024 ...	17
8. irudia.	Arabako museoaren titulartasuna (balio absolutuak eta %). 2024 .....	17
9. irudia.	Bizkaiko museoaren titulartasuna (balio absolutuak eta %). 2024 .....	18
10. irudia.	Gipuzkoako museoaren titulartasuna (balio absolutuak eta %). 2024 .....	18
11. irudia.	Museoen kudeaketa modua (balio absolutuak eta %). 2024 .....	19
12. irudia.	Museo eta bilduma publikoen erakunde kudeatzaileak (balio absolutuak eta %). 2024 .....	19
13. irudia.	Museo eta bilduma pribatuen erakunde kudeatzaileak (balio absolutuak eta %). 2024 .....	20
14. irudia.	Museo eta bildumen antzinatasuna (sortze- eta irekiera-urtea) (balio absolutuak eta %). 2024 ...	21
15. irudia.	Lagun Elkartearen duten edo ez duten museoak (balio absolutuak eta %). 2024 .....	21
16. irudia.	Lagunen Elkartearen duten museoak tipologiaren arabera (balio absolutuak). 2024 .....	22
17. irudia.	Lagunen Elkartearen duten museoak lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024 .	22
18. irudia.	Patronatua duten museoak lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024. ....	23
19. irudia.	Ondorengo zerbitzuak dituzten museo eta bildumak (balio absolutuak eta %). 2024 .....	24
20. irudia.	Ondorengo ekipamenduak dituzten museo eta bilduma (balio absolutuak eta %). 2024 .....	25
21. irudia.	Web orriaren ezaugarriak (balio absolutuak eta %). 2024 .....	26
22. irudia.	Web orriak eskaintzen dituen zerbitzuak (balio absolutuak eta %). 2024 .....	27
23. irudia.	Museoak eta bildumak jendaurreko irekitze-modalitatearen arabera (balio absolutuak eta %). 2024 .....	28
24. irudia.	Museoak eta bildumak urtean irekitako egun kopuruaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024 .....	29
25. irudia.	Museoetan eta bildumetan sartzeko modua (balio absolutuak eta %). 2024 .....	29
26. irudia.	Museoak eta bildumak ikusteko alde aurretiko eskara behar den edo ez (balio absolutuak eta %). 2024 .....	30
27. irudia.	Museo eta bildumen sarrera mota (balio absolutuak eta %). 2024 .....	30
28. irudia.	Museoen eta bildumen sarrera mota, titulartasunaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024 ...	31
29. irudia.	Doako tarifa bakarrik duten museoak eta bildumak, lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024 .....	31
30. irudia.	Tarifa osoa duten museoak eta bildumak sarrera-prezioaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024 .....	32
31. irudia.	Sarrera ordaindua duten museoaren eta bildumen tarifa mota (balio absolutuak eta %). 2024 .....	32
32. irudia.	Museoak eta bildumak, tarifa murriztuak balia ditzaketen taldeen arabera (balio absolutuak eta %). 2024 .....	33
33. irudia.	Museoak eta bildumak, doako sarrerak balia ditzaketen taldeen arabera (balio absolutuak eta %). 2024 .....	34
34. irudia.	Museo eta bildumetako bisitari-kopurua lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024 .....	35
35. irudia.	Museo eta bildumetako bisitari-kopurua udalerraren arabera (balio absolutuak). 2024 .....	36
36. irudia.	Bisitarien banaketa tarifa motaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024 .....	38
37. irudia.	Bisitarien banaketa, nazionalitatearen arabera (balio absolutuak eta %). 2024 .....	39

38. irudia.	Bisitari atzerritarren banaketa museoa kokatzen den lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024 . . . . .	39
39. irudia.	Atzerriko bisitari kopurua museo eta bildumen tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024 . . . . .	40
40. irudia.	Museo eta bildumek taldeen bisitak eskaini dituzten edo ez (balio absolutuak eta %). 2024 . . . . .	41
41. irudia.	Aldi baterako erakusketak eskaini dituzten museo eta bildumak, tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024 . . . . .	42
42. irudia.	Hezkuntza jarduerak eta bestelako jarduerak antolatzen dituzten museo eta bildumak eta zein talderi eskaini zaizkion (balio absolutuak eta %). 2024 . . . . .	43
43. irudia.	Museo eta bildumak, 2024an argitalpenen bat argitaratu dutenaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024 . . . . .	44
44. irudia.	Museo eta bildumek argitaratutako argitalpen mota (balio absolutuak eta %). 2024 . . . . .	44
45. irudia.	Museo eta bildumek argitaratutako lanetan erabilitako euskarria (balio absolutuak eta %). 2024 . . . . .	45
46. irudia.	Museo eta bildumen argitalpenak hizkuntzaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024 . . . . .	45
47. irudia.	Museo eta bildumak langile kopuruaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024 . . . . .	46
48. irudia.	Museo eta bildumak langile kopuruaren arabera (ordainduak eta boluntarioak) (balio absolutuak). 2024 . . . . .	47
49. irudia.	Museo eta bildumetako langileak, horien lan-harremanaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024 . . . . .	48
50. irudia.	Museo eta bildumak soldatapeko langile kopuruaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024 . . . . .	48
51. irudia.	Soldatapeko langile gehien dituzten museo eta bildumak (balio absolutuak). 2024 . . . . .	49
52. irudia.	Museo eta bildumetako langileak lan-motaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024 . . . . .	50
53. irudia.	Museo eta bildumetako langileak lanbide-kategoriaren arabera (balio absolutuak eta lanbide-kategoriaren arabera (%)). 2024 . . . . .	50
54. irudia.	Museo eta bildumetako langileak, generoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024 . . . . .	52
55. irudia.	Museo eta bildumetako langileak, generoaren eta lanbide-kategoriaren arabera (%). 2024 . . . . .	52
56. irudia.	Museo eta bildumetako langileak, lanaldi motaren arabera (%). 2024 . . . . .	53
57. irudia.	Museo eta bildumetako langileak lanaldiaren eta lanbide-kategoriaren arabera (%). 2024 . . . . .	54
58. irudia.	Museo eta bildumen finantzazio-iturriak (balio absolutuak eta %). 2024 . . . . .	55
59. irudia.	Finantzazio publikoa duten museo eta bildumen erakunde finantzatzaileak (balio absolutuak eta %). 2024 . . . . .	56
60. irudia.	Museo eta bildumen diru-sarrera propioak (balio absolutuak eta %). 2024 . . . . .	56
61. irudia.	Museo-funtsak, museo eta bildumen tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024 . . . . .	57

# TAULEN AURKIBIDEA

1. taula.	Museo eta bildumetako bisitari-kopurua, tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %) 2024 . . . . .	36
2. taula.	Museo eta bildumetako bisitari kopurua, tipologiaren eta lurralde historikoaren arabera (balio absolutua eta %) 2024 . . . . .	37
3. taula.	Museo eta bildumetako langileak, lanbide-kategoriaren eta lan-harremanaren arabera (% horizontala) 2024 . . . . .	51

# AURKEZPENA

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren baitan dagoen Museoen Zentroak, bi urtez behin, Euskadiko Museo eta Bildumen estatistika-ikerketan egiten du. Txostenaren xede nagusiak dira: datuak eguneratzea, herritarrei Euskadiko museoaren sektoreari buruzko alderdi nagusiak aurkeztea, eta kultur erakunde eta kudeatzaile publikoei zein pribatuei beharrezko informazioa eskaintzea.

Dokumentu honetan 2024ko emaitza nagusiak agertzen dira, eta **EMSIMEn, Euskadiko museoaren kudeaketarako sistema informatikoa** dauden hiru lurralde historikoetako 67 museo eta bildumek hartu dute parte.

Emaitza horiek honako dimentsio hauei buruzko datuak ematen dituzte:

- Museo-sarearen ezaugarri orokorrak
- Azpiegituren ezaugarriak
- Eskaintzen dituzten zerbitzuak eta erabilgarri dagoen ekipamendua
- Sarbidea
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea
- Museo-erakundeetako langileei buruzko datuak
- Datu ekonomikoak
- Museo-funtsen informazioa

Azterketa honek Euskadiko museo-sektorearen gaur egungo egoeraren irudi orokorra ematen du, eta aukera ematen du museo-azpiegituren ezaugarriak ezagutu eta horien irakurketa egiteko.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Euskadiko museoaren eta bildumen arduradunei eta talde teknikoei, txosten hau egiteko informazioa partekatzeagatik.

## PARTE-HARTZEA

Estatistika honetan EMSIMEN dauden hiru lurralde historikoetako 67 museo eta bildumek hartu dute parte; hau da, erantzun-maila %100koa izan da. 1. Eranskinean agertzen da 2024an parte hartu duten museo eta bildumen zerrenda.

Aipatzekoa da, galdetegia bidali zaiela Euskadiko Museoen Erregistroan inskribatuta dauden entitateei eta foru aldundietako museoari. Azterketan ez dira aintzat hartu interpretazio zentroak edo bestelako erakusketa guneak, ezta ere erregistratu gabe dauden museo publiko edo pribatuak.

## GARATU DIREN EDUKIAK

Txosteneko kapituluak garatzeko erabilitako galdetegiko aldagaiak honako hauek dira:

- **Erakundeari buruzko datu orokorrak:** identifikazio-datuak eta izaera, tipologia, titulartasuna eta kudeaketa, sorrera eta irekiera, etab.
- **Azpiegitura, zerbitzuak eta ekipamendua:** eraikinaren informazioa, zerbitzuak eta informatizazio-maila.
- **Sarbidea:** jendaurreko irekitze egunak eta orduak, sarrera motak eta tarifak.
- **Erakundearen jarduera:** bisitariak eta egindako erakusketak, argitalpenak eta bestelako jarduerak.
- **Langileak:** langile kopuru orokorra, generoa, lan mota, lan-harremana eta maila.
- **Datu ekonomikoak:** batik bat, finantzaketa-iturriak.
- **Museoetako funtsak.**

Aipatutako azterketa-aldagai horiez gain, aintzat hartu diren klasifikazio-aldagaiak, batez ere, museoen tipologia eta lurralde historikoa izan dira. Esan behar da jatorrizko galdetegian ez direla bisitariak generoaren arabera aztertzen; langileak, aldiz, bai. Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, orohar, genero-ikuspegia txertatzen du bere plangintza, deialdi, dirulaguntza, batzorde, kontratu eta bestelako agirietan, eta txosten honetan hizkuntza inklusiboa erabili da. Hori dela-eta, EMSIMEn jarritako galdetegian bisitarien generoari buruzko aldagaia txertatzea erabaki dugu.

Museo eta bildumen tipologiari dagokionez, UNESCOk ezartzen duen klasifikazio orokorra erabili da oinarri modura:

- **Arte Ederrak:** antzinasunetik XIX. mendera arteko artelanak jasotzen ditu: arkitektura, eskultura, pintura, marrazkia, grabatuak, etab.
- **Arte Garaikidea:** batez ere XX. eta XXI. mendeetan egindako artelanak hartzen ditu, argazkigintza eta zinea barne.
- **Museo-Etxea:** pertsonaia baten etxean kokatutako museoa.
- **Arkeologikoa:** indusketa, prospekzio eta arkeologia-aztarnategietatik datozen objektuak jasotzen ditu, eta besteak beste espezialitate hauek hartzen ditu kontuan: numismatika, gliptika, epigrafia, etab.

- **Tokikoa:** jatorrizko kokapenean dagoen ondare historikoa, adibidez, aztarnategi arkeologikoak, monumentuak edo tokiko industria-ondarea erakusten duten erakundeak (tartean interpretazio-zentro arkeologikoak, betiere bildumak jatorrizko piezak baditu).
- **Historikoa:** gertakari, aro historiko edo pertsonaia bati buruzko objektuak biltzen ditu.
- **Natur Zientziak eta Historia Unibertsala:** zientzia hauekin zerikusia duten objektuak biltzen ditu: biologia, botanika, geologia, zoologia, antropologia fisikoa, paleontologia, mineralogia, eta ekologia, beste batzuen artean.
- **Zientzia eta Teknologia:** zientzia eta teknikaren historiaren eboluzioaren objektu esanguratsuak jasotzen ditu.
- **Etnografia eta Antropologia:** industria-aurreko garaiko kulturak edo kultura-elementuak biltzen ditu, esate baterako, folklorea, arteak, tradizioak eta ohiturak.
- **Espezializatua:** kultura-ondarearen beste maila baten jaso ezin diren gaietan sakontzen du.
- **Orokorra:** aurreko kategorietako batekin baino gehiagorekin identifika daitekeen museo edo bilduma.
- **Besteak:** aurreko kategorietan sartu ezin diren museo edo bildumak.

---

## EMANDAKO INFORMAZIOA

Emandako informazioa osatua dago, 2024ko museo en erroldan zeuden 67 museo eta bildumek erantzun dute. Gainera, kasurik gehienetan, galde-sortako item guztiei erantzun zaie. Grafiko edo taula guztietan ageri da erantzun-oinarria, hau da, galdera bakoitzari zehazki erantzun dion erakunde-kopurua.

---

## IKERKETAREN FITXA TEKNIKOA

<b>Metodologia</b>	Norberak betetako inkesta
<b>Informazioa eskuratzeko tresna</b>	Galdera itxiez osatutako galdetegia
<b>Lortutako azken lagina</b>	67 museo eta bilduma
<b>Informazioa noiz bildu zen</b>	2025eko urtarriletik - martxora
<b>Ikertutako urtea</b>	2024
<b>Lurralde eremua</b>	Euskal Autonomia Erkidegoa

Kapitulu honetan, Euskadiko museo eta bildumen oinarriko ezaugarri buruzko ikuspegi orokorra eskaintzen da: kokalekua, tipologia, titulartasuna, kudeaketa-modalitatea, antzinatasuna eta patronaturik edo lagunen elkarterik ote duen.

## EUSKADIKO MUSEO ETA BILDUMEN KOKAPENA


Euskadiko museo-erakundeen ia erdia Gipuzkoan kokatzen da; bertan dago eskaintzaren %44,8. Bigarren lekuan Bizkaia dago, museoaren %40,3arekin, eta azkenik, Araban azpiegitura horien %14,9 biltzen da.

Hala ere, esanguratsua da museo-erakundeak hiru lurraldeetan nola banatzen diren: Gipuzkoan, museo-erakundeak lurralde osoan zehar sakabanatuta daude, eta hiriburuan dago kontzentrazio txikiena: 30 museo 20 udalerritan banatuta daude, eta horietatik 6 bakarrik daude hiriburuan. Aldiz, Araban, 10 museotatik 7 hiriburuan daude. Bizkaiaren kasuan, 27 museo eta bilduma 17 udalerritan banatuta daude, eta horietatik 10 hiriburuan kokatzen dira.

Portzentajeei erreparatuta, Gipuzkoako hiriburuak lurraldeko museoaren %20 hartzen du; Arabakoak, berriz, %70. Bilbo bien artean kokatzen da, Bizkaiko museoaren %37arekin.


67 entitateetatik 64 museoak dira eta 3 bildumak (zehazki: Orkonera-Lutxana Bilduma —2022an ireki zen jendaurrean—, Monzon-Olaso Etxe-Museoa Bilduma —2023an— eta BBKren Bilduma —2024an—).

### 1. irudia. Museoen eta bildumen banaketa, udalerraren arabera. 2024



Oinarria: 67 museo eta bilduma.

## 2. irudia. Museoak, lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024




Oinarria: 67 museo eta bilduma.

## MUSEO ETA BILDUMEN TIPOLOGIA

Euskadiko museo-eskaintzan nabarmendu beharrekoak dira kultur ondarearen arlo zehatz batzuetan espezializatutako museoak. Guztira 14 dira; hau da, bostetik bat museo espezializatu da. Aipatzekoak dira zientziarekin eta teknologiarekin lotutako azpiegiturak, hau da, zientziaren eta teknikaren adierazgarri diren objektuak biltzen dituztenak: 9 museoek tipologia hori dute (%13,4). Aldiz, museo-etxeak eta arte garaikideko museoak ez dira hain ugari Euskadiko museo-sarean: bi museo besterik ez dago tipologia bakoitzean.

### 3. irudia. Museoak eta bildumak, tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024




Oinarria: 67 museo eta bilduma.

Museo eta bilduma bakoitzaren tipologia lurralde historikoen arabera aztertuta, Gipuzkoan izaera espezializatuko azpiegiturak nagusitzen dira (%26,7), baita zientzia eta teknologikoak ere (%20). Aldiz, ez dago ez arte ederretako museorik, ezta arte garaikidekorik ere.

Bizkaiari dagokionez, museo historikoak nabarmentzen dira (%18,5), eta jarraian datoz arte ederretakoak (%14,8) eta espezializatuak (%14,8).

Arabari, berriz, bina museo daude arte ederretakoak, espezializatuak eta tokikoak. Ondorengo kategoria bakoitzeko museo bana dago: arte garaikidekoa, etnografia eta antropologiakoa, natur zientzietakoa, historia unibertsalekoa eta bestelakoa.

#### 4. irudia. Museoak tipologiaren eta lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak). 2024




Oinarria: 67 museo eta bilduma.

### TITULARTASUNA ETA FIGURA JURIDIKOA

Euskadiko 67 museo-erakundeetatik 39 titulartasun publikokoak dira (%58,2), eta 24, titulartasun pribatukoak (%35,8). Gainerako 4 entitateek (%6,0) titulartasun mistoa dute; hau da, organismo publiko eta pribatuen artean osatutako fundazioak edo partzuergoak dira.

## 5. irudia. Museoen titulartasuna (balio absolutuak eta %). 2024




Oinarria: 67 museo eta bilduma.

Titulartasun publikoaren %79,5 toki-administrazioei dagokie. 39 entitate publikoetatik, 16 aldundienak dira (%41,0), 13 udalenak (%33,3) eta 2, bestelako toki-erakundeak (%5,1).

3 kasutan, titulartasuna Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio, beste 3 kasutan fundazio publikoak, batean hainbat organismo publikoak eta batean Euskal Herriko Unibertsitateari (EHU).


## 6. irudia. Titulartasun publikoko museo eta bildumen nortasun juridikoa (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 39 museo eta bilduma.

Titulartasun pribatuko 24 museo eta bildumen nortasun juridikoari dagokionez, fundazioak nabarmentzen dira: 13 entitate dira, hau da, entitate pribatuen erdia baino gehiago (%54,2). Elkarteentitulartasuneko 3 museo daude (%12,5), beste 3 elizarenak dira (%12,5), eta 5 museo, berriz, bestelako erakundeak dira.


### 7. irudia. Titulartasun pribatuko museo eta bildumen nortasun juridikoa (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 24 museo eta bilduma.


Lurralde historikoei begiratuta, proportzioan Araba da erakunde publiko gehien dituen lurraldea: 10 museotik 9 publikoak dira (%90,0), eta horietatik 7 Foru Aldundiaren titulartasunekoak dira. Bizkaian, ia erdiak titulartasun publikoa dute (%48,1), eta ia beste erdiek titulartasun pribatua (%44,4). Museoen %7,4k titulartasun mistoa dute. Gipuzkoan, museoen %56,7 titulartasun publikokoak dira, eta nabarmentzekoa da lurraldeko museoen %30,0ek udal titulartasuna dutela. %36,7 titulartasun pribatukoak dira, eta %6,7 titulartasun mistokoak.

### 8. irudia. Arabako museoen titulartasuna (balio absolutuak eta %). 2024




Oinarria: 10 museo eta bilduma.

### 9. irudia. Bizkaiko museo en titular tasuna (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 27 museo eta bilduma.

### 10. irudia. Gipuzkoako museo en titular tasuna (balio absolutuak eta %). 2024




Oinarria: 30 museo eta bilduma.

## KUDEAKETA MOTA

Museo eta bilduma gehienak titular tasun publikoak badira ere (39, %58,2), kudeaketa motari begiratuta ikusten da erakunde publikoek kudeatzen dituzten museoak gutxiago direla (29, %43,3). 34 entitatek kudeaketa pribatua dute (%50,7), eta 4k kudeaketa mistoa (%6,0).


### 11. irudia. Museoen kudeaketa modua (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 67 museo eta bilduma.

Titulartasun publikoa duten 39 museoetatik 29 entitate publikoek kudeatzen dituzte (%74,3); horietatik, 9 aldundiek eta 6 udalek kudeatzen dituzte. Titulartasun publikoko 9 museo, entitate pribatu batek kudeatzen ditu, eta museo bat entitate misto batek kudeatzen du.


### 12. irudia. Museo eta bilduma publikoen erakunde kudeatzaileak (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 39 museo eta bilduma.

Titulartasun pribatuko 24 museotatik, 10 fundazioek kudeatzen dituzte (%41,7), non erakunde publikoek eta/edo pribatuek parte har dezaketen. Gutxiago dira elkarteek, sozietateek, elizako erakundeek edo bestelako erakundeek kudeatzen dituzten titulartasun pribatuko entitateak.

### 13. irudia. Museo eta bilduma pribatuen erakunde kudeatzaileak (balio absolutuak eta %). 2024




Oinarria: 24 museo eta bilduma.

## ERATUTAKO URTEAREN ARABERAKO ANTZINATASUNA

Museo eta bildumen ia erdia (31 museo, %47,8) XX. mendeko bigarren erdian sortu zen, eta %37,3 (23 museo), 2000. urtearen ondoren; zehazki, %23,9 2001 eta 2010 artean, eta %13,4 2010etik aurrera. 1950 baino lehen sortutako museoak 10 dira (%14,9).

Jendeari irekitzen zaion urtea aintzat hartuta, aldiz, XXI. mendean ireki zen museo eta bildumen %49,3 (30 museo). Batez beste, museo eta bildumek 30,3 urte daramatzate jendeari irekita.

#### 14. irudia. Museo eta bildumen antzintasuna (sortze- eta irekiera-urtea) (balio absolutuak eta %). 2024




Oinarria: 67 museo eta bilduma.

#### LAGUN ELKARTEAK ETA PATRONATUAK

Aztertutako museo-eskaintza guztiaren %29,9k, 20 museo, dute Lagunen Elkartearen babesletza formula. Gehienak titulartasun publikokoak dira (10), 7 pribatuak eta 3 titulartasun mistokoak.


#### 15. irudia. Lagun Elkartearen duten edo ez duten museoak (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 67 museo eta bilduma.

Museo mota kontuan hartuta, Lagunen Elkartearen dutenen artean, museo espezializatua (5 museo, %25,0) eta zientzia eta teknologia museoak (4 museo, %20,0) nabarmentzen dira.


### 16. irudia. Lagunen Elkartea duten museoak tipologiaren arabera (balio absolutuak). 2024



Oinarria: 20 museo eta bilduma.

Lurralde historikoaren arabera, Gipuzkoan eta Bizkaian 8na museoak dute Lagunen Elkartea, eta Araban lau museoak dute. Lurralde bakoitzeko museo kopuru osoarekiko, Arabako museoek %40,0k dute Lagunen Elkartea, Bizkaian (%29,6) eta Gipuzkoan (%26,7) baino zertxobait gehiagok.


### 17. irudia. Lagunen Elkartea duten museoak lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 20 museo eta bilduma.

Patronatuari dagokionez, Euskadiko museoen mapan erakundeen %38,8k patronatua dute (26 erakundek), eta 41 erakundek ez dute patronaturik (%61,2). Lurralde historikoaren arabera aztertuta, Gipuzkoan 14 museo dira patronatua dutenak (Gipuzkoako museoen %46,7), Bizkaian 11 (Bizkaiko museoen %40,7) eta Araban bat (Arabako museoen %10,0).

**18. irudia. Patronatua duten museoak lurralde historikoaren arabera (balioa absolutuak eta %). 2024**



Oinarria: 26 museo eta bilduma.


Kapitulu honetan museo eta bildumen eraikin, ekipamendu eta zerbitzuen ezaugarri nagusiak aztertzen dira. Aldi berean, museo-erakundeek informazioaren eta komunikazioaren teknologiak nola erabiltzen dituzten ere azaltzen da.

## ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK

Nabarmentzekoa da Euskadiko museo eta bildumek eskaintzen dituzten zerbitzu eta ekipamenduen aniztasuna. Azpimarratzekoa da bisita gidatuak, eta erakusketa iraunkorrari buruzko informazioa aretoan bertan (panelak, etab.) eskaintzen duten museoek kopurua (%98,5 eta %92,3, hurrenez hurren); izan ere, aztertutako museo-erakunde ia guztiek eskaintzen dituzte zerbitzu horiek. Bestelako informazioa (liburuxkak, esku-orriak, etab.) eskaintzen dutenen portzentajea ere oso altua da (%87,7).

Museo eta bildumen ia bi herenek (%64,6) eskaintzen dute informazio eskuragarria desgaitasunen bat duten pertsonentzako, eta erdiak baino gehiagok hirugarrenei espazioa alokatzeko aukera (%56,9), eta gidak euskarri elektronikoen (%50,8). Ingurumen-kontrola museo eta bildumen %44,6k eskaintzen dute.


### 19. irudia. Ondorengo zerbitzuak dituzten museo eta bildumak (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 65 museo eta bilduma.

Ekipamenduei dagokionez, ohikoenak dira aretoetan informazioa eskaintzea —panelak eta bestelako informazio euskarriak— (%89,2) eta desgaitasunen bat duten pertsonentzako sarrera egokitua izatea (%81,5). Denda edo liburu-denda, jarduera didaktikoetarako lekua eta liburutegia duten museoen proportzioa ere altua da (%75,4, %73,8 eta %67,7, hurrenez hurren). Presentzia txikieneko ekipamenduak dira argazkigintza-laborategiak (%10,8), berritze-lanetarako aretoa (%20,0) eta kafetegi/jatetxeak (%21,5).

## 20. irudia. Ondorengo ekipamenduak dituzten museo eta bilduma (balio absolutuak eta %). 2024




Oinarria: 65 museo eta bilduma.

## INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Euskadiko museo eta bildumetan informazioaren eta komunikazioaren teknologiek presentzia handia dute. Denek web orria dute; batzuek museoaren atari batera konektatuta (%42,2), beste batzuek web orri independente batean sartuta (%37,5), eta beste batzuek museoaren atari bat baino gehiagotara lotuta (%28,1).

## 21. irudia. Web orriaren ezaugarriak (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 64 museo eta bilduma (erantzun anitza).


Web orriak eskaintzen dituen zerbitzuei dagokienez, guztiek bisitariarentzat oinarrizko informazioa eskaintzen dute (%100,0): helbidea, egitaraua, ordutegia, tarifak, etab.

%85,9k eskaintzen ditu bisitariaren eta museoaren arteko komunikaziorako kanalak (helbide elektronikoa, etab.); %82,8k hezkuntza-jarduerak eskaintzen ditu (material didaktikoa, etab.); eta %81,3k bisitariarentzat museoaren jakinarazpenak eskaintzen ditu (informazio-buletinak).

Web orrien erdiak baino gehiagok bestelako bildumetarako sarbidea (%59,4), ikerketa zientifikoetarako informazioa (%54,7) eta sareko zerbitzuak (%51,6) eskaintzen dituzte.

Eta azkenik, gutxiago dira bisita birtuala eskaintzen dutenak (%48,4), sarreraren online salmenta eskaintzen dutenak (%37,5) eta bestelako online zerbitzuak eskaintzen dituztenak (%28,1).

## 22. irudia. Web orriak eskaintzen dituen zerbitzuak (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 64 museo eta bilduma (erantzun anitza)


Kapitulu honetan aztertuko da zer irekiera-modalitate duten Euskadiko museoek; baita sarrera mota eta sartzeko aplikatzen diren tarifak ere.

## JENDEARI IREKITZEKO MODALITATEA ETA SARRERA MOTA

2024an, Euskadiko museo eta bildumen %97 (65 museo) publikoari irekita egon dira, eta, aldiz, 2 museo (%3,0) denboraldi baterako itxita egon dira.

Publikoari irekita dauden museo gehienak (59 museo, %88,1) urteko hilabete guztietan zabalik daude, nahiz eta asteko egunen batean itxi; aldiz, %9, 6 museo, urte-sasoi batean bakarrik daude irekita edo bestelako egutegia dute.


### 23. irudia. Museoak eta bildumak jendaurreko irekitze-modalitatearen arabera (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 67 museo eta bilduma.

2024an zabalik egon diren museo eta bildumen %72,3 300 egun baino gehiagotan egon dira zabalik; %13,8 251-300 egun artean, %4,6 201 eta 250 egun artean, eta %7,7 200 egun edo gutxiagotan.


**24. irudia. Museoak eta bildumak urtean irekitako egun kopuruaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024**



Oinarria: 65 museo eta bilduma.

Aztertutako Euskadiko museo-espazioen %94,0k mugarik gabeko sarbidea eskaintzen dute beren instalazioetara, eta %6,0k sarbide mugatua (4 museok).


**25. irudia. Museoetan eta bildumetan sartzeko modua (balio absolutuak eta %). 2024**



Oinarria: 67 museo eta bilduma.

Aldiz, museo eta bilduma kopuru garrantzitsu batera sartzeko, aurretiaz eskaria egin behar da, zehazki, museoek %44,8k eskatzen dute aldez aurretiko eskaria. Aldez aurretiko eskaerarik ez da behar museoek % 55,2an.

**26. irudia.** Museoak eta bildumak ikusteko alde zuzeneko eskara behar den edo ez (balio absolutuak eta %). 2024




Oinarria: 67 museo eta bilduma.

## SARRERAREN EZAUGARRI EKONOMIKOAK

Museo gehienetara sartzeko tarifa bat aplikatzen da, eta %31,3 baino ez da doan.


Titulartasun publikoko museoen artean nabarmen gehiago dira doako sarrera dutenak (%35,9) titulartasun pribatua dutenen artean baino (%25,0).

**27. irudia.** Museo eta bildumen sarrera mota (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 67 museo eta bilduma.


**28. irudia.** Museoen eta bildumen sarrera mota, titulartasunaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 67 museo eta bilduma.

Doako sarrera duten museo gehienak Bizkaian (%52,4) eta Araban (%38,1) kokatzen dira, eta %9,5 besterik ez Gipuzkoan.

**29. irudia.** Doako tarifa bakarrik duten museoak eta bildumak, lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024




Oinarria: 21 museo eta bilduma.

Ordainketa-tarifa duten 46 museo-erakundeek oinarrizko tarifa bat dute, non ez diren sartzen aldi baterako erakusketak, izan ere, horiek tarifa espezifikoak dituzte.

Museo eta bildumen erdiek (%50,0) 2 eta 5 euro arteko sarrera kobratzen dute; %26,1ek 5 eta 10 euro artekoa, eta %15,2k 10 euro baino gehiagokoa. 2 euro baino gutxiago kobratzen dutenak %2,2 dira.


### 30. irudia. Tarifa osoa duten museoak eta bildumak sarrera-prezioaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 46 museo eta bilduma.

Sarrera kobratzen duten 46 museo eta bildumetatik ia guztiek tarifa murrizturen bat eskaintzen dute (45 museoak, %97,8), 41ek doako sarrera eskaintzen diete talde jakin batzuei (%89,1), eta 26k pase bereziak eskaintzen dituzte (bonuak, paseak, txartelak...) (%56,5).


### 31. irudia. Sarrera ordaindua duten museo eta bildumen tarifa mota (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: sarrera kobratzen duten 46 museo eta bilduma (erantzun anitza).

Tarifa murriztuen onuradun izan daitezkeen taldeei dagokienez, museoaren %78,3k tarifa murriztuak eskaintzen dizkiete ikasleei; %73,9k taldeei, eta %69,6k adineko pertsonari. Museoaren erdiak (%50,0) ezinduei eskaintzen dizkiete tarifa murriztuak, eta %43,5ek haurrei. Bertako biztanleei tarifa murriztuak eskaintzen dizkieten museoak %13,0 besterik ez dira.


**32. irudia. Museoak eta bildumak, tarifa murriztuak balia ditzaketen taldeen arabera (balio absolutuak eta %). 2024**



Oinarria: sarrera kobratzen duten 46 museo eta bilduma (erantzun anitza).

Sarrera kobratzen duten 46 museo eta bildumetatik 41ek doako sarrera eskaintzen diete talde jakinei, onuradun nagusiak haurrak izanik: museoen %73,9k haurrei doako sarrera eskaintzen diete. Gainontzeko onuradun taldeei doako sarrera eskaintzen dieten museoen portzentajea nabarmen jaisten da.

### 33. irudia. Museoak eta bildumak, doako sarrerak balia ditzaketen taldeen arabera (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: sarrera kobratzen duten 46 museo eta bilduma (erantzun anitza).

Azkenik, Euskadiko museo-sarean gutxien eskaintzen den tarifa mota pase bereziena da: sarrera kobratzen duten 46 museo eta bildumetatik 26k eskaintzen dute (%56,5). Pase berezi horiek, nagusiki, pase konbinatuak dira (museoa/hiria, museoa/museoa, museoa/turismoa...), (11 museo, %23,9), doako sarrerako paseak (11 museo, %23,9) eta urteko paseak (9 museo, %19,6).

Bestalde, tarifa osoa duten 46 museo-erakundeetatik 20k (%43,5) gutxienez astean behin doako sarrera eskaintzen dute.


## MUSEOEN JARDUERAK

Kapitulu honetan Euskadiko museo eta bildumen bisitari-kopurua, erakusketak, argitalpenak eta erakunde horiek sustatzen dituzten bestelako jarduerak aztertuko dira.

### MUSEO ETA BILDUMEK IZANDAKO BISITARIAK

Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, 2024an guztira 3.297.075 lagunek bisitatu zituzten Euskadiko museo eta bildumak.

#### 34. irudia. Museo eta bildumetako bisitari-kopurua lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024




Oinarria: 65 museo eta bilduma

Bisitariak lurralde historikoaren arabera nola banatu diren aztertuta, Bizkaiak hartu ditu bisitari gehien, bisitarien %61,9; Gipuzkoak %30,2 eta Arabak %7,9.

Hala ere, aipagarria da Bizkaiak izan dituen 2.041.463 bisitarietatik 1.301.343k (%63,7) *Guggenheim Museoa* bisitatu dutela, eta 207.797k *Arte Ederretako Museoa* (%10,2). Hau da, bisiten %73,9 bi museotan bildu dira, eta nagusiki, eta alde handiarekin, *Guggenheim Museoa*.

Gipuzkoaren kasuan, nabarmendu behar da bisitarien %66,6 Donostian kontzentratzen dela (663.437 bisitari).

### 35. irudia. Museo eta bildumetako bisitari-kopurua udalerrriaren arabera (balio absolutuak). 2024



Oinarria: 65 museo eta bilduma.

Bisitariak museo-tipologiaren arabera aztertuz gero, bisitarien ehunekorik handiena arte garaikideko museotan pilatzen da; zehazki, bisitarien %42,5 (*Guggenheim Bilbao Museoaren* eraginez).

Jarraian datoz, baina alde handiarekin museo eta bilduma orokorrak (%15,0) eta museo espezializatuak (%12,9). Aldiz, bisitari-bolumenik txikiena duten museo-tipologiak Natur Zientziak eta Historia Unibertsaleko museoak (%0,5) eta museo-etxeak (%0,1) dira.

1. taula. Museo eta bildumetako bisitari-kopurua, tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %) 2024

Museoaren tipologia	Bisitari kopurua	%
Arkeologikoa	95.209	2,9
Arte Ederrak	304.873	9,2
Arte Garaikidea	1.401.401	42,5
Bestelakoak	100.508	3,0
Espezializatuak	424.299	12,9
Etnografia eta Antropologia	30.603	0,9

Museoaren tipologia	Bisitari kopurua	%
Historikoa	94.663	2,9
Museo-Etxea	2.734	0,1
Natur Zientziak eta Historia Unibertsala	17.799	0,5
Orokorra	495.648	15,0
Tokikoa	68.661	2,1
Zientzia eta Teknologia	260.677	7,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.297.075</b>	<b>100,0</b>

Oinarria: 65 museo eta bilduma.

Lurralde historiko bakoitzeko bisitari kopuruaren azterketa zehatzago batek honakoa erakusten du:

- **Araban**, hamar bisitaritik hiruk baino gehiagok (%38,5) arte garaikideko museoa bisitatu dute, (*Artium museoa*), bisitarien %22,4k *Bibat Arkeologia Fournier de Naipes Museoa* eta % 22,3k arte ederreko museoren bat (*Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa* edo *Arabako Arte Ederren Museoa*)
- **Bizkaian**, bisitarien %63,7k *Bilboko Guggenheim Museoa* bisitatu du. Bigarren bisitatuena (bisiten %10,2) *Bilboko Arte Ederren Museoa* izan da, eta hirugarrena (bisiten %7,8), *Athletic Clubeko Museoa*.
- **Gipuzkoan**, *Aquarium* da museorik bisitatuena, bisiten %36,8rekin, eta jarraian, %16,5ekin *Eureka! Zientzia Museoa*. Hirugarren lekuan *San Telmo Museoa* dago, bisitarien %10,7arekin.

## 2. taula. Museo eta bildumetako bisitari kopurua, tipologiaren eta lurralde historikoaren arabera (balio absolutua eta %) 2024


Museoaren tipologia	Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Arkeologikoa	—	0,0	19.830	1,0	75.379	7,6	95.209	2,9
Arte Garaikidea	57.930	22,3	246.943	12,1	—	0,0	304.873	9,2
Arte Ederrak	100.058	38,5	1.301.343	63,7	—	0,0	1.401.401	42,5
Museo-Etxea	58.137	22,4	26.517	1,3	15.854	1,6	100.508	3,0
Zientzia eta Teknologia	16.037	6,2	244.990	12,0	163.272	16,4	424.299	12,9
Natur Zientziak eta Historia Unibertsala	4.001	1,5	9.459	0,5	17.143	1,7	30.603	0,9
Tokikoa	—	0,0	86.741	4,2	7.922	0,8	94.663	2,9
Espezializatuak	—	0,0	—	0,0	2.734	0,3	2.734	0,1
Etnografia eta Antropologia	14.679	5,7	2.002	0,1	1.118	0,1	17.799	0,5
Orokorra	—	0,0	23.182	1,1	472.466	47,4	495.648	15,0

Museoaren tipologia	Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Historikoa	8.876	3,4	52.154	2,6	7.631	0,8	68.661	2,1
Bestelakoak	—	0,0	28.302	1,4	232.375	23,3	260.677	7,9
Guztira	259.718	100,0	2.041.463	100,0	995.894	100,0	3.297.075	100,0

Oinarria: 65 museo eta bilduma.

Bestalde, bisitariak sarrera motaren arabera aztertuz gero, museora sartzeko hiru tarifa motak antzeko multzoetan banatzen dira: bisitarien %36,8k tarifa osoa ordaindu dute, %32,9 doan sartu dira eta %30,3k tarifa murriztua ordaindu dute.


### 36. irudia. Bisitarien banaketa tarifa motaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 58 museo eta bilduma.

Estatistika honetan parte hartu duten 67 museo eta bildumetatik 37k 2024an izandako bertako eta atzerriko bisitarien kopurua zehaztu dute: museo eta bilduma horietan, museoko bisitarien %47,4 bertakoak izan dira eta %52,6 atzerritarrak.

### 37. irudia. Bisitarien banaketa, nazionalitatearen arabera (balio absolutuak eta %). 2024




Oinarria: 37 museo eta bilduma.

Atzerriko bisitarien kopuruak lurralde historikoaren arabera aztertuz gero, Bizkaiak izan ditu bisitari gehien (%88,5), Gipuzkoa %10,5ek bisitatu dute eta Araba %0,9k.

Bestalde, Bizkaiko museo bat bisitatu duten pertsonen %54,0 atzerritarra dira; Gipuzkoan %13,1 eta Araban %4,5.


### 38. irudia. Bisitari atzerritarren banaketa museo kokatzen den lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 37 museo eta bilduma.

Museo-tipologiaren arabera, ikus daiteke atzerriko 10 bisitaritik 7 arte garaikideko museoetan biltzen dela (%70,2). Horien atzetik doaz, distantzia handira, museo espezializatuak (%10,4) eta arte ederreko museoak (%7,3). Gainontzeko museoek bisitarien %5 inguru edo gutxiago izan dituzte.


**39. irudia. Atzerriko bisitari kopurua museo eta bildumen tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024**



Oinarria: 37 museo eta bilduma.

Azkenik, Euskadiko museo-sareko erakundeen %61,2k jaso ditu taldeen bisitak.

#### 40. irudia. Museo eta bildumek taldeen bisitak eskaini dituzten edo ez (balio absolutuak eta %). 2024




Oinarria: 67 museo eta bilduma.

### ERAKUSKETAK ETA BESTE JARDUERA BATZUK

Ikerketan parte hartu duten hamar museo eta bildumatatik ia zortzik (%76,1) 2024an inauguratu ziren aldi baterako erakusketak izan dituzte. Hala ere, museo-erakunde bakoitzaren tipologiaren arabera diferentzia nabarmenak ikusten dira.

Arte garaikideko museoetan, bestelako museoetan eta museo orokorretan aldi baterako erakusketak egitea erabat ohikoa da; tipologia horietan museoek %100ek eskaini dituzte aldi baterako erakusketak. Arte ederretako museoetan eta tokiko museoetan %83,3k eskaini dituzte aldi baterako erakusketak, eta museo arkeologikoen, museo espezializatuen, etnografia eta antropologia museoetan eta museo historikoen kasuan, aldi baterako erakusketak museoek %70 eta %75 artean eskaini dituzte. Natur zientzia eta historia unibertsaleko eta zientzia eta teknologiako museoetan artean, horrelako erakusketak eskaintzen dituztenen portzentajea jaitsi egiten da (%66,7), eta museo-etxeen artean erdiak dira (%50).

**41. irudia. Aldi baterako erakusketak eskaini dituzten museo eta bildumak, tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024**




Oinarria: 67 museo eta bilduma.

Euskadiko museo eta bilduma gehienek (%92,5ek) beren museo-jarduera osatzeko beste jarduera batzuk ere eskaintzen dituzte, eta jarduera osagarri horien artean hezkuntza-jarduerak nabarmentzen dira, 59 museo eta bildumek eskaintzen dituztenak (%88,1).

Hezkuntza-jarduera horiek haurrei (%86,6) eta familiei (%70,1) zuzentzen zaizkie nagusiki. Baina badira ere hezkuntza-jarduerak adinekoei (%58,2), desgaitasunen bat duten pertsoneri (%53,7), gutxiengo etnikoko pertsoneri (%23,9) eta bestelako taldeetakoiei (%43,3) eskaintzen dizkieten erakundeak.

Hezkuntza-jarduera horiez gain, Euskadiko museo eta bildumek bestelako jarduera kulturalak (%67,2), hitzaldiak (%58,2), kurtsoak/tailerrak/seminarioak edota jardunaldiak (%53,7), proiektzioak/ikus-entzunezkoak (%46,3), eta neurri txikiagoan kontzertuak (%26,9) ere eskaintzen dituzte.

**42. irudia.** Hezkuntza jarduerak eta bestelako jarduerak antolatzen dituzten museo eta bildumak eta zein talderi eskaini zaizkion (balio absolutuak eta %). 2024




Oinarria: 67 museo eta bilduma (erantzun anitza)

## ARGITALPENAK

2024an argitalpenen bat egin dutela adierazi dute aztertutako Euskadiko museo eta bildumen %79,1ek.


### 43. irudia. Museo eta bildumak, 2024an argitalpenen bat argitaratu dutenaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 67 museo eta bilduma.

Dibulgazio-materialak dira Euskadiko museo eta bildumek argitaratutako eduki nagusiak (zerbait argitaratu duten museoek %69,8k argitaratu dituzte, 37 museo). Jarraian, baina nabarmen atzerago, material didaktikoa (%39,6), aldizkako argitalpenak (%35,8), gidak (%32,1) eta zientzia-katalogoak argitaratu dituztenak (%22,6) daude.


### 44. irudia. Museo eta bildumek argitaratutako argitalpen mota (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 53 museo eta bilduma (erantzun anitza).

Papera da argitalpen hauek egiteko erabiltzen den euskarri nagusia (argitalpenen bat duten museoen %88,7k paperezko euskarrian argitaratzen ditu). Jarraian, webean erabilgarri dagoen euskarri elektronikoa erabili dutenak daude (%56,6), eta azkenik, euskarri elektronikoa argitaratu dutenak (%43,4).

**45. irudia. Museo eta bildumek argitaratutako lanetan erabilitako euskarria (balio absolutuak eta %). 2024**




Oinarria: 53 museo eta bilduma (erantzun anitza).

2024an argitalpenen bat argitaratu duten 53 museo eta bildumetatik, 44 museoek zein hizkuntzatan argitaratu duten zehaztu dute. Guztiek argitaratu dute argitalpenen bat euskaraz (%100,0) eta ia guztiek gaztelaniaz (%97,7).

Erdiak baino zertxobait gehiagok ingelesez (%52,3) eta ia 10etik 4k frantsesez (%38,6). Eta %10ak baino gutxiagok alemanez (%6,8) edo beste hizkuntza batean (%4,5).

**46. irudia. Museo eta bildumen argitalpenak hizkuntzaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024**



Oinarria: 44 museo eta bilduma (erantzun anitza).

Kapitulu honetan Euskadiko museo-sarearen zerbitzura dauden langileei buruzko oinarrizko informazioa biltzen da. Horretarako, lan-harremanarekin, lanbide-kategoriarekin, generoarekin edota lanaldimotarekin lotutako hainbat adierazle aztertzen da.


## MUSEO ETA BILDUMEI ATXIKITAKO LANGILEAK ETA HORIEN LAN-HARREMANA

Aztertutako 66 museo eta bildumetan 752 pertsonak egiten dute lan museoarekin lotutako eginkizunetan (ordainduta edo modu boluntarioan), eta batez beste, museo bakoitzak 11,4 langile ditu. Estatistikaren aurreko ediziotik behera egin du langile kopuruak (2022an 794 pertsonak egiten zuten lan, beraz %5,3 egin du behera langile kopuruak).

Museo eta bildumak langile kopuruaren arabera tartetan aztertuta, 27 museoek 5 langile baino gutxiago dituzte (museo eta bildumen %40,9k), 31 museoek 5 eta 25 langile artean (%47,0k), eta 8 museo dira 26 langiletik gora dituztenak (%12,1).


Langile kopuru handieneko 8 museo horietan ia langileen erdiak egiten dute lan: 360 langilek (% 47,9k). Hauek dira langile kopuru handieneko 8 museo horiek: *Guggenheim Bilbao Museoa* (98 langile), *Bilboko Arte Ederren Museoa* (58 langile), *Lenbur Lurralde Museoa* (41 langile), *San Telmo Museoa* (40 langile), *Eureka! Zientzia Museoa* (33 langile), *Aquarium-a* (33 langile), *Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa* (30 langile) eta *Burnibidearen Euskal Museoa* (27 langile). Gainerako 58 entitateetan 392 langilek egiten dute lan (%52,1).

### 47. irudia. Museo eta bildumak langile kopuruaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 66 museo eta bilduma.


**48. irudia. Museo eta bildumak langile kopuruaren arabera (ordainduak eta boluntarioak) (balio absolutuak). 2024**



Oinarria: 66 museo eta bilduma.

Museo eta bilduma hauetan lan egiten duten 752 pertsonetatik, 682 ordainpekoak dira (%90,7): horietatik 572k lanpostu iraunkorra dute (langile guztien %76,1) eta 110ek aldi baterako enplegua (%14,6). 11k ez dute ordainsaririk jasotzen (%1,5) eta 59 boluntarioak dira (%7,8).


**49. irudia. Museo eta bildumetako langileak, horien lan-harremanaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024**



Oinarria: 66 museo eta bilduma.

Erakunde bakoitzean lan egiten duen ordainpeko langile kopuruari dagokionez, 30 museotan (%45,5) 5 eta 25 langile artean lan egiten dute, eta 29tan 5 langile baino gutxiago. 25 langile baino gehiagok lan egiten duten museoak 6 besterik ez dira (%9,1).


**50. irudia. Museo eta bildumak soldatapeko langile kopuruaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024**



Oinarria: 66 museo eta bilduma.

Beraz, soldatapeko langile guztien %44,3 25 langile baino gehiago dituzten 6 erakunde horietan biltzen da.

### 51. irudia. Soldatapeko langile gehien dituzten museo eta bildumak (balio absolutuak). 2024



Oinarria: 66 museo eta bilduma.


Erakunde hauetan lan egiten duten pertsona guztien %7,8 (59 langile) borondatezko langileak dira, baina gehien gehienak (44 langile) bi museoetan biltzen dira: *Burdinbideko Euskal Museoan* eta *Euskal Herriko Meatzaritza Museoan*. Borondatezko langile gutxi batzuk ere lan egiten dute beste 6 museoetan: *Mater Ontzi Museo Ekoaktiboan*, *Soinuenea Herri Musikaren Txokoan*, *Plasentia de Butron Museoan*, *Antzastin*, *Ibarraundi Museoan* eta *Lenbur Museoan*.

Eta honako 7 museoetan lan egiten dute ordainpekoak ez diren langileak: *Museum Cemento Rezola*, *Medikuntza Historiaren Euskal Museoa*, *Museo Margarita María. de Berriz al Mundo*, *Euskal Abertzaletasunaren Museoa*, *EHUko Hezkuntzaren Museoa*, *Luberri Museoa* eta *Hontza Museoa*.

## LANGILEEN LANBIDE-KATEGORIA


Erakunde hauetan lan egiten duten 752 pertsonetatik %78,6k museoaren jarduerarekin lotutako lanpostuak betetzen dituzte, eta %21,4k lanpostu osagarriak eta zeharkakoak, hala nola, mantentze-, garbiketa- eta segurtasun-lanak.

**52. irudia.** Museo eta bildumetako langileak lan-motaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 66 museo eta bilduma.

**53. irudia.** Museo eta bildumetako langileak lanbide-kategoriaren arabera (balio absolutuak eta lanbide-kategoriaren araberako %). 2024



Oinarria: 66 museo eta bilduma.

- Lanbide-kategoria nagusia, lan espezializatuak egiten dituzten langile teknikoena da (kontserbatzaileak, zaharberritzaileak, liburuzainak, gidak, etab.), erakunde hauetan lan egiten duten pertsonen %41,6k lanbide-kategoria hori baitu (313 lanpostu).
- Jarraian datoz administrazioko langileak, langileen %29,5 (222 lanpostu).
- Jarduera osagarriei eta zeharkakoei lotutako enpleguak, hau da, mantentze-lanetarako langileak, garbitzaileak, segurtasuneko langileak eta bestelakoak langile guztien %21,4 dira (161 lanpostu).
- Eta azkenik, zuzendaritzako langileak, %7,4 (56 lanpostu).

### 3. taula. Museo eta bildumetako langileak, lanbide-kategoriaren eta lan-harremanaren arabera (% horizontala) 2024

	Ordaindua / lanpostu iraunkorra	Ordaindua / aldi baterako lanpostua	Ordaindua Guztira	Ordaindu gabea	Boluntarioak	Guztira	Langile kopurua
Zuzendaria	85,7	1,8	87,5	10,7	1,8	100,0	56
Langile espezializatuak	70,0	22,0	92,0	1,0	7,0	100,0	313
Administrazioko langileak	77,0	10,8	87,8	0,9	11,3	100,0	222
Mantentze eta garbiketako langileak	77,8	8,3	86,1	0,0	13,9	100,0	72
Zaintza- eta segurtasun-langileak	79,2	20,8	100,0	0,0	0,0	100,0	48
Bestelako langileak	97,6	0,0	97,6	0,0	2,4	100,0	41
Guztira	76,1	14,6	90,7	1,5	7,8	100,0	752

Oinarria: 66 museo eta bilduma

Museo eta bildumetara atxikitako langileen banaketa lanbide-kategoriaren eta lan-harremanaren arabera aztertuz gero, desberdintasun ikusten dira.

Lanbide-kategoria guztietan gehienak ordainpeko langileak badira ere, alde txikiak ikusten dira lanbide-kategoria desberdinetan; horrela, zaintza- eta segurtasun-langileen kasuan %100 dira ordainpekoak, eta bestelako langileetan ere, portzentaje hori oso altua da: % 97,6. Gainontzeko kategorietan ordainpeko langileen portzentajea %85 eta %92 artean kokatzen da. Ordainpekoak diren baina aldi baterakoak diren lanpostuen portzentajeak langile espezializatuetan (%22,0) eta zaintza- eta segurtasun-langileetan (%20,8) dira altuenak.


Langile boluntarioen pisua guztirako pisuaren gaintik kokatzen da mantentze eta garbiketako langileetan (%13,9) eta administrazioko langileetan (%11,3).

Azkenik, museo eta bildumen %10,7k (6 museo) ez dute ordaindutako zuzendaririk, eta eginkizun hori ordainsaririk jasotzen ez duten pertsonak betetzen dute.

## LANGILEEN BANAKETA GENEROAREN ARABERA

Generoari erreparatuz, nabarmentzekoa da emakumeek presentzia handiagoa dutela Euskadiko museo-erakundeentzako plantillatan: %62,1 dira emakumezkoak, eta %37,9 gizonezkoak.

**54. irudia. Museo eta bildumetako langileak, generoaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024**




Oinarria: 66 museo eta bilduma.

Lanbide-kategoriak generoaren arabera aztertuta, desberdintasun batzuk atzematen dira. Emakumezkoen presentzia altuagoa da langile espezializatuak eta administrazioko langileen artean (%64,9 eta %65,3 hurrenez hurren); baita bestelako langileen artean ere (%82,9).

Zainketa eta segurtasun-langileen artean gizonezkoak dira nagusi (%60,4); eta zuzendaritza lanpostuetan eta mantentze- lanak eta garbiketako langileetan generoak nahikoa orekatuta daude (zuzendarietan %51,8 emakumezkoak dira eta %48,2 gizonezkoak, eta mantentze eta garbiketako langileetan %51,4 emakumezkoak eta %48,6 gizonezkoak).

**55. irudia. Museo eta bildumetako langileak, generoaren eta lanbide-kategoriaren arabera (%). 2024**




Oinarria: 66 museo eta bilduma.

## LANALDI MOTA

Euskadiko museo eta bildumetako 10 langiletik 6k lanaldi osoa dute (%60,5), eta gainontzeko %39,5ek lanaldi partziala: zehazki, %16,1ek lanaldi erdia edo gehiago, eta %23,4k lanaldi erdia baino gutxiago.

### 56. irudia. Museo eta bildumetako langileak, lanaldi motaren arabera (%). 2024




Oinarria: 66 museo eta bilduma.

Lan-kategoria guztietan lanaldi osoa duten langileak nagusitzen badira ere, lan-kategoriaren arabera aldeak daude. Lanaldi osoan lan egiten duten langileen portzentajea ondorengo kategoriatan da altuena: zaintza- eta segurtasun-langileetan (%79,2) eta zuzendarietan (%73,2).

Gainontzeko lan-kategorietan erdia baino gehiago badira ere lanaldi osoan lan egiten dutenak, bestelako lanaldiak ere nabarmentzen dira: hala nola, mantentze-lanak eta garbiketako langileen %33,3k lanaldi erdia baino gutxiago dute, langile espezializatuetan %28,4k eta administrazioko langileetan %20,7k.

57. irudia. Museo eta bildumetako langileak lanaldiaren eta lanbide-kategoriaren arabera (%). 2024



Oinarria: 66 museo eta bilduma.


Jarraian, Euskadiko museo eta bildumen finantza-informazioaren azterketa laburra egingo da; zehazki, estatistikaren atal honi erantzun dioten 49 museo eta bildumen diru-sarreraren eta finantzazioaren azterketa.

Erantzun duten museo eta bildumen %100ak jasotzen dituzte diru-sarrerak sektore publikotik; %75,5ek (37 entitatek) entitatek berak sortutako diru-sarrera propioak dituzte (sarrerak, bestelako salmentak), eta %42,9k (21 entitatek) ekarpen pribaturen bat jasotzen dute.

Baina museo gehienek finantzaketa-iturri bat baino gehiago dituzte: erantzun duten 49 museo eta bildumetatik 38k bi edo hiru finantzaketa-iturri dituzte (%77,5), eta 11 dira sektore publikotik jasotako diru-sarrerekin soilik finantzatu direnak (%22,4).

Batez beste, Euskadiko museo eta bildumen diru-sarreraren %73,4 sektore publikotik jasotako diru-sarrerak dira; diru-sarrera propioetatik datozenak %16,9 dira, eta ekarpen pribatuak %9,7.


## 58. irudia. Museo eta bildumen finantzazio-iturriak (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 66 museo eta bilduma.

Sektore publikoko dirulaguntzak lau erakundetatik datoz: Europar Batasunetik, Estatuko Administrazio Orokorretik, Eusko Jaurlaritzatik eta toki-administrazioetik. Atal honi erantzun dioten 49 museo eta bildumen finantzaketa-iturri nagusia toki-administrazioa da (foru aldundiak, udalak...), 42 erakunderi ematen baitiete dirulaguntza (%85,7); jarraian, administrazio autonomikoa (33 entitateri laguntza, %67,3). Aldiz, gutxi dira Estatuko Administrazio Orokorren edo Europar Batasunaren finantzaketa jasotzen dutenak (%14,3 eta %8,2 hurrenez hurren).


**59. irudia. Finantzazio publikoa duten museo eta bildumen erakunde finantzatzaileak (balio absolutuak eta %). 2024**



Oinarria: 49 museo eta bilduma (erantzun anitza).

Museo eta bildumen diru-sarrera propioak bi iturritatik datoz: bisitariei kobratutako sarreretatik eta beste diru-sarrera gehigarri batzuetatik. Honela, diru-sarrerak propioak dituztela adierazitako entitateetatik (37 museo eta bilduma), %59,5ek diru-sarrerak izan dituzte bai sarrerak saltzeagatik, baita bestelako kontzeptuengatik ere (beste salmentak, espazioen alokairua...), %18,9k sarrerak saltzeagatik soilik, eta %10,8k beste kontzeptu batzuetatik.

**60. irudia. Museo eta bildumen diru-sarrera propioak (balio absolutuak eta %). 2024**




Oinarria: 37 museo eta bilduma.

Kapitulu honetan 2024an Euskadiko museo eta bildumek dituzten funtsak aztertzen dira.

Euskadiko funtsetan, guztira, 1.547.063 unitate kontabilizatu dira, 2022an baino 204.240 pieza gehiago. Hala ere, kontuan izan behar da funtsei buruzko atala 61 museo eta bildumek bete dutela.

## 61. irudia. Museo-funtsak, museo eta bildumen tipologiaren arabera (balio absolutuak eta %). 2024



Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Kontabilizatutako funts guztien hiru laurdena Euskadiko bi museo tipologiatan gordetzen da: funtsen %44,1 natur zientzia eta historia unibertsaleko museoetan gordetzen da eta %31,2 museo espezializatuetan. Gainerako funtsen banaketa sakabanatua dago museo eta bilduma tipologia desberdinetan: %6,7 etnografia eta antropologia museoetan, %5,3 museo orokorretan, %3,6 museo historikoetan, %3,1 zientzia eta teknologia museoetan eta %2,3 arte ederretako museoetan. Funtsen

%1aren azpitik dituzte arte garaikideko museoek, tokiko museoek, museo arkeologikoek eta museo-etxeek.

59 entitatek zehaztu dute funtsak jendurrean ipinita dituzten edo ez; horietatik %42,4k funtsen %25 baino gutxiago dituzte ikusgai, eta %32,2k funtsen %75 edo gehiago. Nabarmendu behar da orokorrean jendurrean funtsen ehuneko altuena duten museo eta bildumak direla objektu gutxien dituztenak. Honela, bildumaren %100 erakusgai duten entitateen funtsak, Euskadiko museo-funtsen %1,3 besterik ez dira (20.637 pieza). Aldiz, bildumarik handiena duen kolekzioak, *Arabako Natur Zientzietako Museoak*, bere funtsen %1,0 baino ez du erakusten, 6.226 pieza inguru.

# 2024KO ADIERAZLE NAGUSIAK

- Museoen erregistroan inskribatutako museo eta bilduma guztiek hartu dute parte 2024ko estatistika-txostenean; hau da, parte-hartzea %100ekoa izan da.
- Gipuzkoa da museo-eskaintza handiena duen lurraldea, Euskadiko museo eta bildumen %44,8 Gipuzkoan baitago. Bizkaian dago %40,3a eta Araban, %14,9a. Museo gehien dauden lurraldean, Gipuzkoan, daude sakabanatuen: 30 entitateak 20 udalerritan daude. Bizkaian, 27 entitateetatik 10 Bilbon daude, eta Araban, hamar museoetatik zazpi Gasteizen daude.
- Museo eta bilduma espezializatuek Euskadiko museo eskaintzaren %21 inguru osatzen dute; jarraian, zientzia eta teknologikoak nabarmentzen dira (%13,4).
- Museo eta bilduma gehienak titulartasun publikokoak dira (%58,2), nagusiki toki-administrazioenak (%76,9). Euskadiko museo-sarearen %35,8 titulartasun pribatukoa da, nagusiki fundazioena (%54,2), eta beren patronatuetan erakunde publikoek eta pribatuek hartzen dute parte.
- Kudeaketa erakunde publikoen (%43,3) eta pribatuen (%50,7) artean banatzen da; titulartasun publikoa duten 39 museoetatik 29 entitate publikoek kudeatzen dituzte, eta titulartasun pribatuko 24 museoetatik 10 fundazioek.
- Museo eta bildumen ia erdia 2000. urtetik aurrera zabaldu zen jendaurrera (%49,3); batez beste, museoek 30,3 urte daramatzate jendeari irekita.
- Kalitatezko zerbitzua eskaintzeko aukera ematen duten zerbitzu eta ekipamendu mota ugari dituzte. Euskadiko museo eta bilduma ia guztiek eskaintzen dituzte bisita gidatuak (%98,5), erakusketa iraunkorrei buruzko informazioa (%92,3) eta bestelako informazioa (liburuxkak...)(%87,7). Zerbitzu-ekipamenduei dagokionez, gehienek aretoan orientatzeko informazioa eskaintzen dute (panelak, etab.)(%89,2) eta desgaitasuna duten pertsonentzako sarrera egokitua (%81,5).
- Hamar museo-erakundetatik 7k sarrera kobratzen dute (46 museo, %68,7); gainerako %31,3 doakoa da (21 entitate). Baina ohikoa da kolektibo jakin batzuei (taldeei, ikasleei eta adinekoei) tarifa murriztuak edo, are gehiago, doako sarrera eskaintzea (haurrei).
- Euskadiko museoek 3.297.075 bisitari izan dituzte. Bizkaia da bisitari gehien hartu dituen lurralde historikoa, zehazki, bisitari guztien %61,9. Bisitari guztien %52,6 atzerritarak izan dira.
- Euskadiko museo-sareak burututako bestelako jardueren artean, aipatzekoak dira aldi baterako erakusketak, hezkuntza- eta prestakuntza-jarduerak eta argitalpenen edizioa: erakundeen %76,1ek aldi baterako erakusketak antolatu dituzte 2024an; %88,1ek hezkuntza- eta prestakuntza-jarduerak bideratu ditu eta %79,1ek argitalpenen bat egin du.
- Ordaindutako langileak eta boluntarioak kontuan hartuta, Euskadiko museo eta bildumek 752 pertsona enplegatzen dituzte.
- Batez besteko plantilla 11,4 pertsonakoa da, eta ehunekoetan emakumezkoak gehiago dira (%62,1) batez ere administrazio langileen eta teknikari espezializatuen. Ordaindutako 682 langileak soilik kontuan hartuta, azpimarratzekoa da 10etik 4 baino gehiago (%44,3) 6 museo-erakundetan biltzen direla.
- Teknikari espezializatuak nagusitzen dira, eta aipagarria da atxikitako langileen lan-egonkortasuna. Batetik, teknikari espezializatuak dira langileen %41,6, eta bestetik, Euskadiko museoek atxikitako langile ia guztiak ordainpeko langileak dira (%90,7), eta altua da lan-kontratu iraunkorra duen langileen ehunekoak (%76,1).
- Datu ekonomikoei buruzko atala erantzun duten museo eta bilduma guztiek jasotzen dituzte diru-sarrerak sektore publikotik; %75,5ek (37 entitatek) diru-sarrera propioak dituzte (sarrerak, bestelako

diru-sarrera gehigarriak), eta museo eta bildumen %42,9k (21 entitatek) ekarpen pribaturen batetik diru-sarrerak jasotzen dituzte.

- Hartara, Euskadiko museo eta bildumen %57,6k, bi finantzaketa-iturri edo gehiago dituzte (diru-sarrera propioak, sektore publikoko diru-sarrerak edota ekarpen pribatuak).
- 2024an, museo eta bildumetan 1.547.063 museo-funts daude guztira; funts guztien hiru laurdena natur zientzia eta historia unibertsaleko museoetan eta museo espezializatuetan gordetzen da.

# ERANSKINAK

## 2024KO ESTATISTIKAN PARTE HARTU DUTEN MUSEOAK ETA BILDUMAK

### Araba/Álava

Museoa/Bilduma	Udalerría	Museo/bilduma mota
Arabako Arma Museoa	Vitoria-Gasteiz	Espezializatua
Arabako Arte Ederren Museoa	Vitoria-Gasteiz	Arte Ederrak
Artium Museoa. Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa	Vitoria-Gasteiz	Arte garaikidea
Bibat Arkeologia Fournier de Naipes Museoa	Vitoria-Gasteiz	Bestelakoak
Elizabarrutiko Arte Sakratuaren Museoa. Vitoria-Gasteiz	Vitoria-Gasteiz	Arte Ederrak
Euskal Poliziaren Museoa	Vitoria-Gasteiz	Espezializatua
Iruñako Oppidumaren Museoa	Iruña Oka/Iruña de Oca	Tokikoa
La Hoyako Museoa	Laguardia	Tokikoa
Museo Etnográfico de Artziniega	Artziniega	Etnografia eta Antropologia
Natur Zientzietako Museoa	Vitoria-Gasteiz	Natur zientziak eta Historia unibertsala

## Bizkaia

Museo/Bilduma	Udala	Museo/bilduma mota
Antzasti	Dima	Etnografia eta Antropologia
Arrantzaleen Museoa	Bermeo	Tokikoa
Arte Ederren Bilboko Museoa	Bilbao	Arte Ederrak
Athletic Club Museoa	Bilbao	Espezializatua
BBKren bilduma	Bilbao	Arte Ederrak
Bilboko Artelan Berreginen Museoa	Bilbao	Bestelakoak
Bilboko Euskal Museoa	Bilbao	Historikoa
Bizkaiko Arkeologi Museoa	Bilbao	Arkeologikoa
Durangoko Arte eta Historia Museoa	Durango	Arte Ederrak
El Pobaleko Burdinola	Muskiz	Tokikoa
Eleizmuseum. Bizkaia	Bilbao	Arte Ederrak
Enkarterrietako Museoa	Sopuerta	Historikoa
Euskal Abertzaletasunaren Museoa	Bilbao	Historikoa
Euskal Herria Museoa	Gernika-Lumo	Orokorra
Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa	Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	Zientzia eta Teknologia
Gernikako Bakearen Museoa	Gernika-Lumo	Historikoa
Guggenheim Bilbao Museoa	Bilbao	Arte garaikidea
Hontza Museoa. Durangaldeko natur zientzien museoa	Mañaria	Natur zientziak eta Historia unibertsala
Itsasmuseum Bilbao	Bilbao	Espezializatua
La Encartada Fabrika-Museoa	Balmaseda	Tokikoa
Margarita María Museoa. Berriztik mundura	Berriz	Espezializatua
Medikuntza Historiaren Euskal Museoa	Leioa	Zientzia eta Teknologia
Orkonera-Lutxana. Euskadiko Industria Ondarearen Zentroa	Barakaldo	Zientzia eta Teknologia
Orozkoko Museoa	Orozko	Etnografia eta Antropologia
Plasentia de Butron Museoa	Plentzia	Orokorra
Rialia Industria Museoa	Portugalete	Espezializatua
Simón Bolívar Museoa	Ziortza-Bolibar	Historikoa

## Gipuzkoa

Museo/Bilduma	Udala	Museo/bilduma mota
Albaola, Itsas Kultur Faktoria	Pasaia	Espezializatua
Aquarium	Donostia / San Sebastián	Orokorra
Armagintzaren Museoa	Eibar	Zientzia eta Teknologia
Burnibidearen Euskal Museoa	Azpeitia	Zientzia eta Teknologia
Cristóbal Balenciaga Museoa	Getaria	Espezializatua
EHUko Hezkuntzaren Museoa	Donostia / San Sebastián	Espezializatua
Ekainberri	Zestoa	Arkeologikoa
Eureka! Zientzia Museoa	Donostia / San Sebastián	Zientzia eta Teknologia
Euskal Itsas Museoa	Donostia / San Sebastián	Espezializatua
Gatz Museoa	Leintz-Gatzaga	Espezializatua
Ibarraundi Museoa	Eskoriatza	Etnografia eta Antropologia
Igartubeiti Baserri Museoa	Ezkio-Itsaso	Tokikoa
Igartzako Monumentu Multzoa	Beasain	Etnografia eta Antropologia
Laboratorium Museoa	Bergara	Zientzia eta Teknologia
Lenbur Museo Lurralde	Legazpi	Zientzia eta Teknologia
Lili Jauregia	Zestoa	Museo-Etxea
Luberri Museoa	Oiartzun	Natur zientziak eta Historia unibertsala
Makina Erremintaren Museoa	Elgoibar	Zientzia eta Teknologia
MATER Ontzi Museo Ekoaktiboa	Pasaia	Bestelakoak
Monzon-Olaso Etxe-Museoa	Bergara	Museo-Etxea
Museum Cemento Rezola	Donostia / San Sebastián	Espezializatua
Oiasso Erromatar Museoa	Irun	Arkeologikoa
Photomuseum	Zarautz	Espezializatua
Sagardoetxea, Sagardoaren Museoa	Astigarraga	Etnografia eta Antropologia
San Telmo Museoa	Donostia / San Sebastián	Orokorra
Soinuenea. Herri Musikaren Txokoa	Oiartzun	Etnografia eta Antropologia
TOPIC. Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa	Tolosa	Espezializatua
Zarauzko Arte eta Historia Museoa	Zarautz	Arkeologikoa
Zerain Paisaia Kulturala	Zerain	Historikoa
Zumalakarregi Museoa	Ormaiztegi	Historikoa

